



OIARTZUNGO UDALA

UDALEKU IREKIAK OIARTZUN 2006 BEGIRALEEN AUKERAKETARAKO OINARRIAK

Aurreko urtetan bezala, aurtengo uztaileko Udalak udaleku irekiak antolatu ditu Uztailan zehar Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat.

Honen bitartez **BEGIRALE** bezala lan egiteko eskaera egingo duten gazteen aukeraketa egiteko Udalak erabiliko dituen irizpideak jakinerazten dira, honako hauek izango direlarik:

1. **Euskara maila:** EGA agiria dutenei 3 puntu emango zaizkie. Euskaldun zaharrei edota euskaldunberriei (10.urratsetik gora) puntu 1.

Gehienez 3 puntu emango dira atal honetan

2. **Aisialdiko tituluen jabe izatea**, honako balorazioaren arabera:

Begirale agiria: 6 puntu

Atal teorikoaren agiria: 3 puntu.

Gehienez 6 puntu emango dira atal honetan

3. **Heziketarekin harremana duten ikasketak izatea** (Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza). Honako balorazioaren arabera:

Lizenziatura 3 puntu

Diplomatura (edo unibertsitateko 3 ikasturte osoak gaindituta izatea) 2 puntu

4. **Esperientzia** edukitzea udaleku-kanpaldietan begirale bezala. 0,5 puntu udaleku edo kanpaldi bakoitzarengatik.

Gehienez, 5 puntu emango da atal honetan

5. Aisialdiko eskolek antolatutako **espezializazio-ikastaro** bakoitzarengatik, 0,5 puntu.

Gehienez, 2 puntu emango da atal honetan.



OIARTZUNGO UDALA

Hauek dira **begiraleak** hautatzeko kontutan izango diren baldintzak. Irizpide hauen arabera, begirale izan nahi duten gazteei izena emateko epea, martxoaren 6tik 22ra arte irekiko zaie, eta haurren matrikulazioa ezagutu ondoren, beharrezkoak diren begiraleak hilabetez kontratatuzko proposamena egingo du Gazteria Batzordeak, hautatuak era honetan banatuta:

- Bi zuzendari (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako bana)
- Haur Hezkuntzako 10 ikasleko begirale bana.
- Lehen Hezkuntzako 12 ikasleko begirale bana.

Begirale kopuru honetatik 5 lanpostu gordeko dira puntuaziorik onena lortzen duten eta aisialdi-monitore izateko ikastaroaren atal teorikoa bakarrik eginik, titulua lortzeko atal praktikoa egitea beharrezko duten 5 begiralerentzako (beti, baremo honen ondorengo puntuazioaren arabera).

Hautagai bakoitzaren puntuazioa ezarri eta gero, berdinketarik gertatuko balitz, heziketarekin harremana duten ikasketak eta esperientziaren atalak hartuko dira hurrenkera horretan, banan bana, irizpide gisa berdinduta gelditzen diren hautagaien hurrenkera erabakitzeko.

Oiartzun, 2006ko otsailaren 28a.

GAZTERIA TEKNIKARIA